

ZUHAITZEN ALTUERA ETA DIAMETROAREN NEURKETA

Zuhaitzen altuera Suunto hipsometro batekin neurtuko da.



Begiralea, zinta metrikoa erabiliz, zuhaitzetik, aldez aurretik erabakitako 15 edo 20 metrotako distantziara kokatu behar da.

Neurketa gehien errazten duen distantzia aukeratuko da, batez ere zuhaitz dentsitate handia duten basoetan.

Begia bisorean jarritz, pantailan agertzen den marra horizontala, zuhaitzaren parterik altuenarekin lerrotuko da.

20 metrotako distantziara kokatuta bagaude, eskerreko aldean agertzen den eskalarekin egingo da altueraren irakurketa. 15 metrotako distantzian kokatuta bagaude berriz, eskuinaldeko eskala erabiliz egingo da altueraren irakurketa.

Zuhaitzaren altuera osoa ezagutzeko, lehenengo neurri honi, lurretik begiralearen begietara dagoen altuera gehitu beharko zaio.

Prozedura hau, maldarik gabeko azalurretan erabiltzen da. Malda egongo balitz, prozedura hipsometroaren eskuliburuan begiratu beharko litzateke.

Zuhaitzaren diametroa neurtzeko fortzipula bat edo kalibre bat erabiliko da. Neurketa, lurretik 1,30m-tara dagoen puntuan egingo da.

Bi diametro zentzu zutean (perpendikularrean) neurtzen dira (ad., I-E y Ek-M) eta gero, bien batz besteko aritmetikoa kalkulatu da.



Zuhaitzaren enborrean korapilo bat egongo balitz, neurri bat pixka bat gorago eta beste bat pixka bat beherago hartu, eta bien arteko batz besteko aritmetikoa kalkulatu.

Zuhaitzaren enborrean korapilo bat egongo balitz, neurri bat pixka bat gorago eta beste bat pixka bat beherago hartu, eta bien arteko batz besteko aritmetikoa kalkulatu.

Zuhaitzaren enborra bitan banatu bada, adar bakoitzaren diametroa neurtu beharko da.

Gida honek "Oinez Basoa, parte-hartzea, ikerketa eta ingurumen hezkuntza tresna" proiektuan egin da Nafarroako Gobernua (2018-2019) finantzatuta.

LORE INBENTARIOAK

Lore inbentarioak 4m²-ko lauki batetan (erdia makil batek markatzen duelarik) dauden: espezie aukeraketa batek (adib. Ugarienak eta balio indikatzailearekin) edo espezieen talde funtzionalek duten estaldura balioztatzean datza.

Laukia soka batek lotutako egurrezko lau makilez osatuta dago. Makilak lurrian sartuko dira, posible bada, beti toki berean (adib. laukien aldeak lursailaren aldeekin paralelo kokatuz).



Estaldurak balioztatzeko 3 eskala erabiliko dira: azalera osoaren %1 (gutxi gorabehera zabalik dagoen esku baten azalera), %0,1 (eskuaren azaleraren 10ren bat) y %0,01 (belar pizki baten azalera).

Kontutan izandako espezieak estaldutako azalera oso txikia denean, %0,01-eko eskala erabiliko dugu; kasu horretan, alde aurretik, ale baten azalera balioztatu ahal dugu, eta espezie horretako ale desberdinek antzeko estaldura baldin badute, ale kopurua zenbatu dezakegu eta zenbaki hori ale bakar baten estaldurarengatik biderkatu.

% 0,1eskala estaltze ertaina duten espezieentzat erabiliko da eta % 1ekoa espezie dominanteentzat. Estaldura azalera egoera-orri batetan idatziko dira (ikusi adibidea).

Oinez Basoa: Una herramienta para la participación, la investigación y la educación ambiental.

Parte-hartzearen, ikerketa eta ingurumen hezkuntzako erreminta.

Financia: Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua

Picnomon acarna										
Picris echioides										
Polygonum convolvulus										
Potentilla neumanniana										
Rhamnus alaternus										
Rubia peregrina										
Sanguisorba minor										
Serratula pinnatifida										
Seseli montanum										
Sonchus oleraceus										
Spiraea hypericifolia										
Teucrium capitatum										
Teucrium chamaedrys										
Thymus vulgaris										
Torilis arvensis										
Triticum vulgare (restos)										
Triticum vulgare (ricio)										
Verbascum thapsus										
Viola alba										
Xanthium spinosum										

Gida honek "Oinez Basoa, parte-hartzea, ikerketa eta ingurumen hezkuntza tresna"

proiektuan egin da Nafarroako Gobernuak (2018-2019) finantzatuta.